

Nafarroa

Euskaldunon Egunkaria, 1996-06-16: 3.

Nafarroa jatorriz da Euskal Herri, eta historikoki honen enbor politiko nagusi ere. Honek ez du erakuspen beharrik, eta ezin da ezabatu. Gaurko UPNko buruek berek aitortu ziguten EAJko ordezkari ginen Mikel Isasi eta bioi Donibane-Lohizunen beraientzat une larria izan zen Francoren heriotzako 1975.ean formalki egin ziguten bisita hartan: Sabin Aranak huts nagusia egin zuela Nafarroaren izen bera erabili ordez Euskadi asmatu zuenean. Alde bihurrietik zetozen noski. Gaur ere betiko kabernak badu honetarako aitzakia baten parapettoa: EAEk bere mende hartu nahi duela Nafarroa federazio baten tranpaz. Eta egia dena da orain ere UPNko agintariek PP espainolari egiten ari diren presioak Nafarroa-EAE arteko akordioa anaikor eta aurrerakoia dela ekidin nahi dutena, eta beraiek defendatzen dutela dioten foralismoaren kontrako bide faltsuenetik, Madriletik! Demokraziak dituen bi bide nahita galduz, gainera: batetik, Nafarroako parlamentuaren gehiengoa, eta bestetik, mamuetatik at inkesta batek aurreikusten duena, ehundikan 70 nafarrek EAerekin harremanak gehitu nahi dituztela. Baina Nafarroak zabalduko du berezko bidea.